Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4698

EBAZPENA, 2010eko ekainaren 7koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Vitoria-Gasteizko udalerrian Uraren Euskal Agentziak sustatzen duen Batan eta Zapardiel ibaiak uholdeen aurka babesteko proiektua ingurumenaren gaineko eraginari buruzko ebaluaziotik pasarazteko erabakia hartzen duena.

2010eko martxoaren 22an, Uraren Euskal Agentziak eskabide bat igorri zion Ingurumen Sailburuordetza honi, ingurumen-organo horrek bere irizpena eman zezan, Batan eta Zapardiel ibaiak uholdeen aurka babesteko proiektua ingurumenaren gaineko eraginari buruzko banakako ebaluazioko prozeduratik pasarazi beharrari buruz, proiektuen ingurumen-eraginaren gaineko ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 16. artikuluak xedatzen du II. eranskinean jasotako proiekturen bat egin nahi duen pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak, autonomia-erkidego bakoitzak xedatzen duen organoari proiektua ingurumenaren gaineko eraginari buruzko ebaluaziotik pasarazi beharrari buruz irizpena emateko eskatuko diola, III. eranskinean ezartzen diren irizpideen arabera.

Aipatutako arauko 17. artikuluaren arabera, aurreko artikuluan aipatutako eskabidea jasotzen duen organoak azalduko du ea proiektuak ingurumenaren gainean duen eragina ebaluatu behar den ala ez, autonomia-erkidegoak ezartzen duen epean. Hala ere, aurretik, proiektuaren betearazpenaren ondorioak jasango dituzten administrazioak, pertsonak eta erakundeak kontsultatuko dira, eta proiektuaren ingurumen arloko dokumentua haien eskueran jarriko da.

Ingurumen-organoak Batan eta Zapardiel ibaiak uholdeen aurka babesteko proiektua ingurumenaren gaineko eraginari buruzko ebaluaziotik pasarazi beharra ebazteko egindako kontsulta-izapidearen baitan, honako erakunde hauen erantzunak jaso dira: Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saileko Osasun Publikorako Zuzendariordetza, Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zu-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

4698

RESOLUCIÓN de 7 de junio de 2010, de la Viceconsejera de Medio Ambiente, por la que se adopta la decisión de someter al procedimiento de evaluación de impacto ambiental el proyecto de defensa contra inundaciones de los ríos Batán y Zapardiel, promovido por la Agencia Vasca del Agua en el término municipal de Vitoria-Gasteiz.

Resultando que con fecha 22 de marzo de 2010, la Agencia Vasca del Agua remitió a esta Viceconsejería de Medio Ambiente solicitud de pronunciamiento de este órgano ambiental sobre la necesidad de someter el proyecto de defensa contra inundaciones de los ríos Batán y Zapardiel al procedimiento de evaluación individualizada de impacto ambiental, según lo establecido en el artículo 16 del RDL 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental de proyectos.

Considerando que el artículo 16 del citado Real Decreto Legislativo 1/2008 de 11 de enero determina que la persona física o jurídica, pública o privada, que se proponga realizar un proyecto de los comprendidos en el anexo II solicitará del órgano que determine cada comunidad autónoma que se pronuncie sobre la necesidad o no de que dicho proyecto se someta a evaluación de impacto ambiental, de acuerdo con los criterios establecidos en el anexo III.

Considerando que el artículo 17 de la citada norma establece que el órgano que reciba la solicitud a la que se refiere el artículo anterior se pronunciará sobre la necesidad de que el proyecto se someta o no a evaluación de impacto ambiental en el plazo que determine la comunidad autónoma, si bien previamente se consultará a las administraciones, personas e instituciones afectadas por la realización del proyecto, poniendo a su disposición el documento ambiental del proyecto.

Considerando que en el marco del trámite de consultas llevado a cabo por el órgano ambiental en orden a determinar la necesidad de someter el proyecto de defensa contra inundaciones de los ríos Batán y Zapardiel, se han recibido las respuestas del Servicio de Patrimonio Histórico-Artístico y Arqueológico del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes de la Diputación Foral de Álava, de la Subdirección de Salud Pública del Departamento de Sanidad y Consumo del Gobierno Vasco, de la Dirección de Desarro-

zendaritza, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza, Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegia, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza, eta Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Inguruneko Ministerioko Ebroko Konfederazio Hidrografikoa.

Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzatik jasotako erantzunak ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlan bat egitea gomendatzen du, non baloratu egin beharko den planteatzen diren alternatibek nolako eragina izango duten nekazaritza-jardueran eta nekazaritza-lurzoruetan. Gainera, eragin hori ebaluatzeko eta zuzenketa-neurri batzuk ezartzeko zenbait gogoeta kontuan hartzea proposatzen du.

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren erantzunean, bai eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren erantzunean ere, adierazten da proiektuaren eremuan eta eremu horren inguruetan balizko arkeologiagunetzat sailkatutako bi toki daudela.

Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren erantzunean jasotzen denez, jarduera hau ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluaziotik pasarazteko modukoa da, eta, horretarako, honetan oinarritzen da: baliabide naturalak erabiltzen dira; hondakinak sortzen dira, eta ura kutsatu daiteke, alde horretan lurzoru potentzialki kutsatuak egon daitezkeelako eta aurreikusten den lur-mugimenduaren eraginez, eta, gainera, proiektua egiteko aukeratu den aldearen ingurumen-sentikortasuna eransten du. Hori guztia dela eta, proiektu hori ingurumen-ebaluazio egoki batetik pasaraztea aldezten du.

Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren jasotzen denez, bidezkoa da aztertzen ari garen proiektua ingurumenaren gaineko ebaluazioko prozeduratik pasaraztea; izan ere, 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren III. eranskinean ezarritako irizpideen arabera, proiektuaren ezaugarriek justifikatu egiten dute ingurumenaren gaineko eraginari buruzko banakako prozedura batetik pasaraztea eta ingurumenaren gaineko azterlan bat egin beharra.

Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Inguruneko Ministerioaren Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren erantzunean, azkenik, aldezten da proiektuaren alternatibak aztertu egin behar direla eta aipatutako erantzunean zerrendatzen diren neurriak eta gogoetak proiektuaren testuan txertatu behar direla.

Proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuko III. eranskinean ezarritako irizpideak aplikatuz, honako hau ondorioztatu da: Batan eta Zapardiel ibaiak llo Rural y Litoral del Gobierno Vasco, de la Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco, del Centro de Estudios Ambientales del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, de la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental del Gobierno Vasco, y de la Confederación Hidrográfica del Ebro, del Ministerio de Medio Ambiente y Medio Rural y Marino.

Considerando que la respuesta recibida de la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral del Gobierno Vasco recomienda la realización de un estudio de impacto ambiental donde se valore la incidencia sobre la actividad agraria y suelos agrarios que generarían las alternativas planteadas y propone tener en cuenta una serie de consideraciones para la evaluación de la afección y el establecimiento de unas medidas correctoras.

Considerando que en las respuestas del Servicio de Patrimonio Histórico-Artístico y Arqueológico del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes de la Diputación Foral de Álava y en la de la Dirección de Patrimonio Cultural del Departamento de Cultura del País Vasco se señala que en el ámbito del proyecto e inmediaciones se informa de la existencia de dos Zonas de Presunción Arqueológica.

Considerando la respuesta del Centro de Estudios Ambientales del ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, que considera que la actuación podría considerarse susceptible de ser sometida a evaluación de impacto ambiental y se basa en la utilización de los recursos naturales, generación de residuos y posible contaminación del agua debido a la presencia en la zona de suelos potencialmente contaminados y al movimiento de tierras previsto, añadiendo la sensibilidad ambiental de la zona elegida para realizar el proyecto, por lo que se aboga a que el citado proyecto se someta a una adecuada evaluación ambiental.

Considerando la respuesta de la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental del Gobierno Vasco, que considera la oportunidad de sometimiento del proyecto al procedimiento de evaluación de impacto ambiental en atención a los criterios establecidos en el anexo III del Real Decreto Legislativo 1/2008 en base a que las características del proyecto justifican su sometimiento al procedimiento de evaluación individualizada de impacto ambiental y la necesidad de elaborar un estudio de impacto ambiental.

Considerando la respuesta de la Confederación Hidrográfica del Ebro del Ministerio de Medio Ambiente y Medio Rural y Marino, donde se considera que las alternativas del proyecto han de ser analizadas incorporando en su redacción las medidas y consideraciones que se enuncian en la mencionada respuesta.

Considerando que en aplicación de los criterios establecidos en el anexo III del Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental de proyectos, se ha concluido que

uholdeen aurka babesteko proiektua ingurumenaren gaineko eraginari buruzko ebaluazioko prozeduratik pasarazi behar da, aipatutako arau horren III. eranskinean ezarritako irizpideei eta ebazpen honetan aurretik azaldutako guztiari jarraiki, hau da, ondorioztatzen da proiektuak ondorio kaltegarri aipagarriak izan ditzakeela ingurumenean.

Organo honek ebazpen hau idazteko eskumena du, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Ikusirik espedientean ageri diren txostenak, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta aplikazioko gainerako arauak,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Uraren Euskal Agentziak sustatzen duen «Batan eta Zapardiel ibaiak uholdeen aurka babesteko proiektua» ingurumenaren gaineko eraginari buruzko ebaluazioko prozeduratik pasaraztea.

Proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 17.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta aipatutako errege-dekretu horren 8.3 artikuluari jarraituz, ingurumen-organoak sustatzaileari helaraziko dio ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanak izan behar duen zabalera eta xehetasun-maila, egindako kontsultetarako jaso diren erantzunekin batera, proiektuaren izapidetzearekin aurrera egiteko, aipatutako arauan aurreikusitakoren arabera.

Bigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinarazi behar zaio bai Vitoria-Gasteizko Udalari, bai eta proiektuaren sustatzaileari, Ur Agentziari, alegia.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua andrearen aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen duen egunaren biharamunetik hasita.

el nuevo proyecto de defensa contra inundaciones de los ríos Batán y Zapardiel debe someterse a un nuevo procedimiento de evaluación de impacto ambiental en atención a los criterios establecidos en el anexo III de la citada norma y de todo lo anteriormente expuesto en esta Resolución, esto es, se considera que el proyecto puede tener efectos negativos significativos sobre el medio ambiente.

Considerando la competencia de este Órgano para el dictado de la presente Resolución, de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 629/2009, de 22 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca.

Vistos los informes que obran en el expediente, la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, el Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental de proyectos, el Decreto 629/2009, de 22 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, la ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y demás normativa de aplicación,

RESUELVO:

Primero.– Someter al procedimiento de evaluación de impacto ambiental el «proyecto de defensa contra inundaciones de los ríos Batán y Zapardiel», promovido por la Agencia Vasca del Agua, en el término municipal de Vitoria-Gasteiz.

De acuerdo con lo previsto en el artículo 17.3 del Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental de proyectos, el órgano ambiental dará traslado al promotor, de acuerdo con el artículo 8.3 del citado Real Decreto, de la amplitud y del nivel de detalle del estudio de impacto ambiental junto con las contestaciones recibidas a las consultas efectuadas, para que continúe con la tramitación, de acuerdo con lo previsto en la citada norma.

Segundo.– Comunicar el contenido de la presente Resolución al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y al promotor del proyecto, la Agencia Vasca del Agua.

Tercero.– Ordenar la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

Cuarto.– Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su notificación, de conformidad con lo dispuesto

Horrela ezartzen du Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 114. artikuluan eta ondorengoetan; urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 7a.

Ingurumeneko sailburuordea,
NIEVES TERÁN VERGARA.

en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Júridico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de junio de 2010.

La Viceconsejera de Medio Ambiente,
NIEVES TERÁN VERGARA.